

f) Hizkuntza-konpetentzia

1. maila: Oinarrizkoa

Bere idatzietan egitura eta koherentzia falta dago. Akats ortografikoak egiten ditu.

Zailtasuna du bere ezagutzak, iritziak eta ideiak argi adierazteko.

2. maila: Garatze bidean

Modu ulergarrian adierazten ditu transmititu nahi dituen ideiak.

Horretarako, bere jardun profesionaleko egoera eta testuinguruetarako egokiak diren estiloa, kodea, hizkuntza-erregistroa eta formatua erabiltzen ditu.

Bere diskurtsoa koherentea da, entzuten daki eta jario ona du bere burua adierazten duenean.

3. maila: Garatua

Gai da bere burua modu eraginkorrean adierazteko eta transmititu nahi dituen ideien berri emateko. Gainera, egiaztatu egiten du hartzaileek mezua ulertu dutela.

Modu egokian erabiltzen ditu egoeraren arabera egokiak diren komunikazio-kode eta -kanalak.

4. maila: Aurreratua

Komunikazio-prozesua menderatzen du, eta baliabide linguistiko eta ez-linguistikoak erabiltzen ditu azaltzen ari dena hobeto ulertarazteko eta azalpena atsegingarriagoa egiteko, euskarri ezberdinen bidez.

Erreferentea da ikastetxe barruan eta kanpoan, eta partekatu egiten ditu bere azalpenekiko interesa eta gaiarekiko motibazioa pizteko erabiltzen dituen estrategiak.